

**UDALEKU IREKIETAN ETA AUZOLANDEGIETAN SAN MARTIN AGIRRE
IKASTETXEAREN ERABILERA ARAUTZEKO HITZARMENA**

Bergaran, 2023ko maiatzaren 23an

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkari izan.

Bestetik, Jose Ramon Lasa Arana jauna, adinez nagusia, Bergaran, Boni Laskurain pasealekuan dagoen San Martin Agirre ikastetxeko zuzendaria, San Martin Agirre ikastetxearen izenean,

Bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo adierazi dute.

ADIERAZPENAK

2023ko Udaleku irekiak eta Auzolandegiak antolatzeko, Bergarako Udalak San Martin Agirre ikastetxeari bertako espazio batzuk erabiltzeko baimena eskatu dio.

Udaleku irekiak ekainaren 26an hasi eta uztailaren 21era arte izango dira goizeko 9:45etik 13:15era.

Auzolandegiak uztailaren 31n hasi eta abuztuaren 14an bukatuko dira.

Udalak Udalekuak Jardun euskara elkartearen bidez antolatu ditu, kontratatuko diren begirale guztiak Jardunek kontratatuko ditu.

Auzolandegietan lanean egongo den pertsonalaren kontratazioaz aldiz, Eusko Jaurlaritza arduratuko da, Lahar elkarteak dinamizatuko ditu.

KLAUSULAK

LEHENENGOA: UDALAREN BETEBEHARRAK.

Udalekuak eta Auzolandegiak direla eta, gertatutako kalteen (apurketak, desagerpenak,...) ordainketa bere gain hartuko du.

Udalekuak, Auzolandegiak eta hauen antolaketak irauten duten bitartean, udalekuetako eta auzolandegietako arduradunak udalarekin eta zentroko zuzendaritza taldearekin harremanetan egongo dira. Eraikuntzan edozein kalte gertatuz gero, zentroko ordezkariak jakinaraziko diete.

Udalekuetako eta Auzolandegietako parte-hartzaileek jasotako eta sortutako kalteengan, ez du San Martin Agirre ikastetxeak inolako erantzukizunik izango.

Bi programa hauek bukatutakoan programa hauek aurrera eramateko kontratatutako langileek instalazioak garbi utziko dituzte, aurkitu dituzten moduan.

BIGARRENA: SAN MARTIN AGIRRE IKASTETXEAREN BETEBEHARRAK.

Udalekuetarako San Martin Agirre ikastetxeak ondorengoak utziko ditu:

- Haur Hezkuntzako eraikinean: 8 gela, komunak eta patioa.

Auzolandegietarako San Martin Agirre ikastetxeak ondorengoak utziko ditu:

- Haur Hezkuntzako eraikinean: 3 gela, gimnasioa eta dutexak, jangela eta sukaldea. Erabiltzaileek bai sukaldean bai dutexetan ur beroa beharko dute.

HIRUGARRENA: HITZARMENAREN IRAUPENA.

Hitzarmen honek 2023ko Udaleku irekietarako eta Auzolandegietarako balioko du, hauek bukatutakoan (eta hitzartutakoak betetakoan) sinatzaileek ez dute elkarrenganako inolako erantzukizunik izango.

Horrela jasota geratzeko, eta hitzartutakoarekin ados daudela eta bertan jasotakoa zintzo eta leial beteko dutela adierazteko, hitzarmen honen hiru kopia sinatu dituzte, hasieran aipatutako toki eta egunean.



Begarako Alkatea
Gorka Artola Alberdi



San Martin Agirre ikastetxeko zuzendaria
Jose Ramon Lasa Arana